

SAILKAPENA

2.3 Botere asimetriak

IZENA:

Kalea gurutzatuz

HELBURUA:

Ageriko zein izkutuko zapalkuntza egoerak aitortzea eta parte-harztaileak horiekiko dituzten kokapenak ezagutzea

DENBORA:

1. ariketa: 20/30 minutu.
2. ariketa: 40/50 minutu.

LEKUA:

Garrantzitsua da, leku zabala beharko baitugu. Ziurtasun gunea (ikus oharrak) bermatu.

TALDEAREN BALDINTZAK

Pertsona kopurua: Gutxienez, 10 pertsona.

Taldearen egoera: Ezezagun zein ezagunen artean egiteko aproposa.

AZALPENA:

Ariketak bi atal ditu. Lehenengo ariketa, guztiak batera egingo dugu eta bigarrena talde txikietan.

1. ariketa. Dinamika osoa ahots orokorrak (dinamizatzaileak) gidatuko du. Ariketan zehar ezingo da hitz egin ezta kontaktu fisikorik izan ere partaideen artean. Zapalkuntzak eta zapalkuntza eremuak taldearen arabera egokitu beharko ditugu. Hona hemen adibidea:

1) Gu zapalduak:

Kalea gurutzatu dezala, noizbait zapaldua, humilatua, gutxietsia sentitu denak:

- Bere hizkuntza, jatorri edo identitate kolektiboagatik.
- Egotzi dioten sexu/generoagatik.
- Bere maila sozioekonomikoagatik
- Bere ikasketa maila edo ikasten duen horregatik.
- Bere adinagatik.
- Bere aukera sexu-fektiboarengatik.
- Bere aniztasun fisiko/mentalagatik.

-Bere itxura fisikoagatik.

2) Zapalkuntza eremuak:

Kalea gurutzatu dezala, noizbait honako eremuren batean, zapaldua, humillatua, gutxietsia sentitu denak:

-Eskola/ikastetxe/unibertsitatean

-Familian

-Kuadrilan.

-Bere mugimendu politiko edo taldean

-Bere harreman afektibo/sexualen eremuan.

3) Gu zapaltzaile:

Kalea gurutzatu dezala, noizbait beste pertsonaren bat zapaldu, humillatu edo gutxietsi duenak.

2. ariketa. Ariketa honetan bizi izandakoa aztertuko dugu. Ariketak forma ezberdinak har ditzake. Hona hemen gure proposamena. Hausnarketarako galderak bakarka lantzea, gogoeta indibiduala eginez lehenik eta ostean taldekideekin partekatuz. Gure proposamen honetan 4 galdera landuko ditugu, binaka (1-2/3-4).

1) Nola sentitu zara? Zer sentitu duzu?

2) Zerk jo dizu arreta? Zer nabarmenduko zenuke?

3) Zer ikasi duzu? Zein da zure ikaspena?

4) Zein lotura ikusten diozu zure eguneroko jardun/lan politikoarekin?

OHARRAK:

Lehengorik ariketa hasi aurretik honako azalpena emango genuke:

1) Ariketa egiten ari garen lekuaren ondoan "gune seguroa" deritzen tokia dago, norbaitek ariketan zehar atsedean hartu nahi badu edota jarraitzeko indar/gogorik ez balu, bertara sartu edo irtetzea librea izango da.

2) Horretaz gain, tailerrean zehar dinamizatzailerik lan egiten ari diren kideen izenak esan eta nortzuk diren adieraziko dugu, norbaitek ariketan zehar horietako norbaiten laguntza beharko balu.

3) Printzipioz ariketa gelditzeko beharrik ez legokeen arren, norbaitek esaktuko balu, geldituko egingo genuke. Gelditu, eta denon artean berba egin, gertatzen ari den horren inguruan. Hala ere, ariketa ostean

hausnarketa kolektiborako tartea eta gunea egongo dela aldez aurretik azaltzea ere komenigarria da, bertan bitakoa konpartitzeko parada egongo dela jakin dezaten partaideek.

Bigarren ariketa hasi aurretik, lehenengo ariketako arauen arazoak azalduko ditugu: Besteak beste diskriminazioak komunikazio eza, elkartasun eza eta errepikapena behar dituela, indartsu eragiteko pertsona eta kolektiboengan. Hortaz ariketaren helburua biziaren eta sentimenekin konektatzea denez gero, arauak ariketaren emankortasun eta eraginkortasun handiago bati erantzuten dietela alegia.

MATERIALA:

Bigarren ariketa egiteko, paperak eta boligrafoak.

ITURRIA:

Mugimenduak Elkarrizketan Topaketak (guk egokitua).